

AURRA ETA ERRAÑUBA

Espilluba iltzetik
 zinillik arkitzen
 zala ta zubelako
 aizeak ibiltzen,
 eguzkiaren bidez
 bere aurrean an,
 errañuba egiten
 baitzuben lurean.
 Aurrak ikusirikan
 pichi polit ura,
 bera achitutzea
 zitzayon burura;
 ala abiyatu zan
 arrapatu nayan,
 bañan beti iristen
 zan denboran iyan,
 paratzen zionean
 gañean eskuba,
 ark jarzez bat itzul zan
 joaten errañuba:
 eta ernegaturik
 segitzez berari,
 bertan etzanik zion
 eman negarrari,
 Ala arkitzen zala
 gauza polit gabe,
 eta jabetutzeko

esperanzik gabe
 negar ta negar malko
 lodiyak emanaz,
 damaturik alperrik
 egin zuben lanaz,
 dantzatik gelditurik
 kolpez espilluba,
 eskura joan zitzayon
 onen errañuba;
 eta au ikusirik
 mugitzen etzala,
 eta sinisturikan
 jabetu baitzala,
 ezkutaturik malko
 tarteko negarra,
 begietara jayo
 baizitzayon farra.

.

Gizonari au bera
 gertatzen baitzayo,
 zori onaren billa
 iñoiz milla sayo
 egin arren ñondik
 azaltzen etzayo,
 ta menturaz gerogo
 kolpez sortzen zayo.